

Alkatetza txandakatuko dute Baliarrainen

Auzolanean Bizirik taldeko bost kideek hartuko dute kargua; bederatzi hilabetero egingo dute //

Jarraipen zabala izan du papergintzako grebak

Aralar, Munksjö eta Oriako langileek babestu dute lehen greba eguna //

Festarako prest Abaltzisketan eta Belauntzan

San Joan jaiak ospatuko dituzte bihartik aurrera //




ANOETA IRITSI DA KUKUA

Atzo bota zuten Anoetako jaietako txupinazoa; herri ikastolako Joxean Aparicio lehendakariak eta Maialen Mujika kudeaketa batzordeko kideek hartu zuten hitza, eta Itziar Lazkano zuzendariak piztu zuen suziria //

LIZARDI

inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behea
Tolosa 943 65 11 22



260.000€

Tolosa, Aroztegieta kalea. Duplex:
0.S: sukaldea-egongela, 2logela eta bainugela
1.S: 1logela, bainugela eta egongela. Trasterlekua.



235.000€

Rondilla kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.



196.728€

Ibarra, Arantzazuko ama: atikoa, 2 logela, sukaldea-egongela eta bainugela. Terrazarekin.

Irailetik aurrera, itxura berria izango du Amarotz auzoak

Abuztuan amaituko dituzte Auzo Etxeko eraberritze lanak; beste proiektu batzuekin ere lanean dihardute oraindik. Guztira, 348.198 euroko inbertsioa burutuko du udalak.

Josu Artutxa Dorronsoro

2017 hasieran Amarotzeko auzotarrek erabaki zuten 2008an izenpetutako auzoaren garapen urbanistikotik eratorritako udalaren aprobetxamendua (1.100.000 euro) zertan inbertitu. Udalak bultzatutako parte-hartze prozesuan osatutako hiru proiektuetatik, bat aukeratu behar izan zuten. Zehazki Auzo Etxea eta anbulatorioa eraberritu eta egokitzzea, Hexagonoaren ondoan erabilera anitzeko eremu estalia sortzea, Bolatokia egokitzea eta haur parkea eraberritzea aukeratu zuten auzotarrek.

Auzo Etxeari dagokionez, apirilean hasi ziren eraberritze lanean, eta abuztuan amaitzea aurreikusten dute. Eraikina osorik berregokituko da. Dagoeneko, teilatua garbituta dago, elektrizitate eta aireztapen instalakuntzak ere berritu dira, eta zorua ere eraberritu da, beharrezko gunee-tan. Hurrengo asteetan, eraikina txukuntzeaz eta margotzeaz gain, barne-antolaketa moldatuko da, eta kanpoaldeko arotzeria berrituko da. Behin lanak amaituta, honako guneak izango ditu Auzo Etxeak: KZgunea, antzokia, sukaldia, bi areto, erabilera anitzeko gela, bi bulego, 3 komun (bat kanpoaldean), biltegia eta pilotalekua. Bizilagunek lehenetsi zituzten beste proiektuak ere garapen fasean daude; udal ordezkariak eta auzotarrak elkarlanean



Apirilean ekin zioten Amarotzeko Auzo Etxea osorik eraberritzeari. ATARIA

ari dira, eta hurrengo esku-hartzea kanpoaldeko parkean burutzea aurreikusten dute.

Guztira, 348.198 euroko inbertsioa burutuko du udalak. Olatz Peon alkateak, «auzoa bizi mantentzeko, hau da, ekimenak bultzatzeko edota bizilagunen proiektuak garatzeko, zerbitzu egokia bermatuko duten eremuak eskaintzea ezinbestekoa dela» nabarmendu du. «Auzoarekiko apustu garbia izan da, aprobetxamendua bertan inbertitzea konpromisoa betez. Eskertzekoa eta balioan jartzekoa da, proiektu guztietan auzotarrek izandako inplikazioa».

LAN URBANISTIKO GEHIAGO

2008an, Orubide erakunde publikoarekin sinatu beharreko hitzar-

men urbanistikoa onartu zuen Tolosako Udalak. Hitzarmen horren helburua Amarotz auzorako aurreikusitako etxebizitza garapenaren baldintzak zehaztea zen. Batetik, udalari, lege zegokion aprobetxamendua auzoan bertan inbertitzea erabaki zen. Bestetik, sarrera-irteera eta ekipamendu berriak egiteari lehentasuna eman zioten.

Behin eginbeharrak Amaro-zko Auzo Elkartearekin adostuta, auzoaren sarrera-irteeren urbanizazio proiektua diseinatu eta exekutatatu zen. 2018an aprobetxamendua hartatik geratzen zen diru kopurua zein hirigintza zuzkidurara bideratu erabaki zuten auzotarrek, Amarotzen gauzatutako herri galdeketa.

IRAGARKI LABURRAK

Banatzaila

Tolosaldea. 34 urteko mutil gaztea almagazteko lanak, banaketa edo kamioi txikiarekin lan egiteko prest. CAP eta karretillero karnetak. Lanerako gogoarekin. 618 254 960.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus-en**



Joseba Lasa (Isastegi), Markel Olano eta Ainhoa Aizpuru ahaldukin. ATARIA

Isastegik irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sagardo Lehiaketa

Tolosako sagardotegia saritu dute Donostian, lehiaketaren 18. edizioan. Adunako Aburuza sagardotegiak ere urrezko kalifikazioa eskuratu du.

J. Artutxa

XVIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak txapelketaren sari banaketa egin zuten, asteartean, Donostiako Foru Jauregian. Azken zortzi sailkatuen artean, Tolosako Isastegi sagardotegia izan da irabazlea.

Epaimahaiak balioan jarri ditu sagardoaren kalitate analitiko eta organoleptikoa. Markel Olano ahaldu nagusiak gogorarazi zuen helburua bertako sagarra-ekin egindako sagardoa, Euskal Sagardoa jatorri-izendapena duena, balioan jartzea, sustatzea eta saritzea dela: «Lehen sektorearen ikur sendoenetako bat da, ekonomiaren eta kulturaren alorrean garrantzia izugarria duen azpisektorea».

Berrikuntza bat izan du 18. edizioak. Orain arte, aurkeztutako sagardotegi guztien artean sei sailkatzen ziren azken fasera, eta irabazleaz gain, bigarren eta hirugarren postuak ere finkatzen ziren. Aurten, aldiz, hiru kalifikazio ezarri dira lehen fasean, puntuazioaren arabera: urrea 72 puntutik gora, zilarra 65 eta 72 puntu artean, eta brontzea 60 eta 65 puntu artean.

60 puntuko gutxienekoa lortu ez duten sagardotegiak dominarik gabe geratu dira. Txapelduna, berriz, bigarren dastatzea fasean aukeratu da, urrezko kalifi-

kazioa lortu duten sagardotegien artean.

2019ko edizioan zortzi izan dira 60 puntutik gora lortu dituzten sagardotegiak: brontzezko kalifikazioa lortu du Petritegi, zilarrezkoa Alorreneak, eta urrezkoa Isastegik, Oihartek, Tximistak, Altzuetak, Zelaia eta Adunako Aburuzak. 2020an, saridun guztiek, euren botiletan zigilu egiaztagir bat eramateko aukera izango dute, urrezko, zilarrezko eta brontzezko sailkapena erakutsiz. Gainera, Tolosako sagardotegiaren izenean, 3.000 euroko ordainsaria, txapela eta barrika baten garaikurra jaso zituen Joseba Lasak.

Urtero bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Faisoro dastagunean diplomadun diren sei dastatzailek osatutako epaimahaiak erabaki du sailkapena. Aldiz, aurkeztutako sagardotegiek proposatutako sei lagunek izan dute txapelduna hautatzeko ardura: Aitor Mendiluzek, Andoni Eizmendik, Mikel Rodriguezek, eta Faisoroko dasta-paneleko hiru profesionalak. Aurkeztutako sagardo guztiei egin zaie analisi fisiko-kimikoa, dastaketa organoleptiko fasera pasatzeko ezinbesteko baldintza zena. Guztira, 13 analisi egin zaizkio sagardo bakoitzari. Irabazlea, berriz, lagin guztien alderdi analitiko eta organoleptikoa aztertu ondoren aukeratu dute.





Papergintzako langileek manifestazioa egin zuten atzo Hernanin; gaur, Tolosara eramango dute mobilizazioa. Manifestazioa Trianguloa plazatik 12:00etan irtengo da. KRONIKA

Aralar, Munksjö eta Oriako langileak grebara atera dira

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek, langileen babesarekin, greba deitu dute papergintzan hitzarmen berri baten alde; gaur, Tolosan manifestazioa egingo dute 12:00etan

Asier Imaz

Amezketako Aralar eta Berastegiko Ahlstrom Munksjö lantegiak itxi egin zituzten atzo. Zizurkilgo Orian ere greba egin zuten, baina enpresatik ez zuten informazio gehiago eman nahi izan. Gipuzkoako papergintzan greba eguna zen atzokoa, gaurkoa bezala. Hitzarmen berri baten alde ari dira borrokan, eta eskualdeko hiru lantegi horietan du eragina. Guztira, 16 greba egun deitu dituzte. Hurrengo biak ekainaren 26an eta 27an izango dira. Hortik aurrera, uztailaren 3, 4, 10 eta 11; irailaren 18, 19, 25 eta 26a; eta urriaren 2, 3, 9 eta 10a agertzen dira egutegian.

Lehen greba egunean, atzo, Hernanin elkartu ziren manifestazioan. Gaur, 12:00etan, Tolosako Trianguloa plazan elkartuko dira. Papergintza hitzarmen berri baten alde borrokan dagoela erakutsi nahi dute kaleetan.

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek egin dute deialdia. Aurrez, lantegietan, bozketak egin zituzten deialdien babesarekin neurtzeko.

Eskualdeko enpresei dagokien ez emaitzak ondorengoak izan ziren LABek eskainitako datuen arabera: Amezketako Aralarren 87 langilek eman zuten baiezkoren aldeko botoa, 27 izan ziren ezetz bozkatu zutenak, zuriak 3 izan ziren eta baliogabe bakarra; Berastegiko Munksjön 78 baiezkoko izan ziren, 14 ezezko eta boto zuri bat; eta azkenik, Zizurkilgo Orian, grebaren aldeko 27 boto kontatu zituzten, aurkako 17 eta zuri bakarra.

«ADEGI MAHAITIK ALTXTATU DA»

LAB eta ELA sindikatuek ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkartearen jarrera salatu dute, «sektorea grebara behartu» dutela azpimarratuz. Ekainaren 17an sindikatuak eta enpresen ordezkariak bilera egin zuten. «Gure ustetan bilera erabakigarria izan behar

zuen iruzur bilera bat bihurtu da», adierazi dute LABetik. Batzarraren xehetasunetan sartuta, ondorengo gehitu dute: «Patronalak ez du fitxarik mugitu eta ez du inongo proposamen berri mahai gainean jarri eta alde soziala egin du blokeo egoera honen errudun».

Jarrera horren aurrean sindikatuek urratsak eman dituztela adierazi dute LABetik: «Mahaia desblokeatu, negoziatzen jarraitzeko eta akordio bat posible egiteko asmoarekin ADEGIri proposamen berri bat egin diogu, proposamen garrantzitsu bat non soldatetan proposamen berri bat luzatu dugun; lizentzietan ere gure plataforma mugitu dugu, kontuan izanda guretzat oso

Eskualdeko papergintza lantegietan grebaren aldeko jarrera nagusitu da botoetan

puntu garrantzitsuak direla». Urrats horien aurrean jasotako erantzuna, ordea, ez da sindikatuek nahi zutena: «ADEGIren erantzuna lotsagarria izan da benetan, mahaitik altxatzea erabaki dute, beraien negoziatzeko borondate eza argi eta garbi erakutsiaz. Jakinarazi diegu langileok bozkatu dugula ADEGIren proposamena, eta ez dela nahikoa erabaki dugula, beste proposamen berri bat ekartzea eskatuz. Baina ADEGIk muzin egin dio asanbladak erabaki duenari eta negoziaketak bertan behera utzi ditu». Ondorioz, grebara joatea beste aukerarik ez diela utzi esan dute LABetik.

«SOLDATA ALTUAK»

ELA sindikatuaren irakurketa bide beretik doa: «Bileran, negoziatzeko borondatea agertu beharrean, sektorean soldata altuak kobratzen direla leporatu die Adegik langileei. Eta hori guzti balitz, ez dute inolako aldake-

tarik proposatu euren plataformari dagokionez».

Hala ere, sindikatuak amore emateko ez daudela esan dute ELAtik: «Alderdi guztientzat onuragarria izan daitekeen hitzarmena lortzeko asmoz, aldaketa berriak jarri ditugu mahai gainean: besteak beste, soldata igoeraren eskaera %0,6 jaistea, KPI+%2ra arte, beti ere, akordio batera heltzeko asmoz». Proposamen horrek, ordea, inolako eraginik ez duela izan azaldu dute ELAtik, eta jarrera berean jarraitzeaz gain, ADEGIk ez duela ezer berri eskaini berretsi dute, «sektoreak bizi duen momentutik oso urrun dagoen eskaintza bati helduz».

Amaitzeko, hitzarmen duin baten alde borrokan jarraituko dutela iragarri dute, «beste behin ere». Horretarako, hurrengo hitzordua gaur, 12:00etan, Tolosako Trianguloa plazan kokatu dute. Ekainaren 23an eta 24an, berriz, greba egingo dute.

Solstizio Festarako prest dituzte ekitaldiak, Altzon

ALTZO // Altzoko Udalak Solstizio festa prestatu du. Bihar aurpegiak margotzen ikasteko ikastaroa izango da, 17:00etatik aurrera. 19:00etan, igandeko festarako prestaketa bilera irekia izango da, eta 19:30ean, *Erraiak. Arbasoen oihartzuna* dokumentala eskainiko dute Batzarremuñon. 20:15ean, igandean sua pizteko egingo den irrintzi kolektiboaren entseguia egingo dute. Igandean, 19:00etatik aurrera izango da festa.

Uztailaren 5etik 7ra Aralarrera irteera, mendi taldearekin

ALEGIA // Alegiako mendi asanbladak irteera egingo du uztailaren 5etik 7ra, Aralarrera. Ostiral arratsaldez abiatuko dira Buruntzun zinerara lo egiteko. Larunbat osoa Igaratzen pasako dute, eta igandea Artubín. Eraman beharrekoak lotarako zakua, eta ostiraleko afaria eta larunbateko bazkaria izango dira. Gainerako otorduak mendi asanbladak jarriko ditu. Joan nahi duenak izena hilaren 24a baino lehen eman beharko du alegiakomendiasanblada@gmail.com helbidera idatzita. Helduek 20 euro eta umeek 15 euro ordainduko dute.

Sutarri dantza taldean ikasturte berrirako izena eman daiteke

ALEGIA // Sutarri dantza taldea dagoeneko ikasturte berriari begira jarrita dago. Hori dela eta, datorren ikasturterako, hau da, 2019-2020rako, matrikulatze epea irekita du. Bost urtetik (2014 urtean jaioak) gorakoek eman dezakete izena, eta hilaren 25a da azken eguna. Izen ematea kultur etxean egin daiteke edo 616 648 413 telefono zenbakira mezuan honakoa idatziz: izen-abizenak, jaiotza urtea eta telefono zenbaki bat.

Txintxarri Txiki eta Gazte abesbatzen kontzertua, bihar

ALEGIA // Alegiako Txintxarri abesbatzako abeslariak ikasturte bukaerako emanaldia eskainiko dute, bihar, 19:00etan, Elizpe zinema aretoan. Azken entseguak egiten ari dira Txintxarri Txiki eta Txintxarri Gazte abesbatzak, eta Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean ariko dira Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteko abeslari gazteenak. Mariaje Rekondo herritarrek pianoarekin lagunduko die, eta zenbait abes-titan taldeko Amana Aizpuru gitarrarekin ariko da. Guztira dozena bat kantutaldea izango da.



Andoni Olano, Maribi Garmendia, Juan Mari Iturrioz, Jaione Olano eta Josu Ozaita dira Auzolanean Bizirik taldeko kideak. E.M.

Alkate karguaren pisua banatuz, Baliarrainek, bost alkate izango ditu

Talde moduan lana egiteko modurik onena delakoan, Auzolanean Bizirik taldeko kide guztiek hartuko dute agente makila; bederatzi hilabetero aldatu egingo da alkatea

Eneritz Maiz Etxarri Baliarrain

Maiatzeko udal hauteskundee-tarako taldea osatu zuten Baliarrainen, baina ez zuten zehaztu zein izango zen alkatea. Programarik ere ez zuten idatzi. Josu Ozaita, Jaione Olano, Juan Mari Iturrioz, Maribi Garmendia eta Andoni Olanok osatzen dute Auzolanean Bizirik taldea, eta hurrenez hurren, bederatzi hilabeteretik behin, alkate makila esku batetik bestera pasako da.

«Ilusioz eta gogoz» hasi dira lanean bost kideak, eta lau urteko pisua, bosten artean banatuz, probatu egin nahi dute: «Alkatearen figura administratiboa edo burokratikoa izango da, eta herritarrek ez dute aldaketarik antzemango».

Baliarrainen 91 herritar daude 18 urtetik gorakoak, eta onartu dute ez dela erraza izan taldea osatzearena: «Duela lau urteko bera gertatzera zihoan. Aurreko legealdikoek erabakita zuten ez zutela jarraituko. Bi-hiru asteren faltan ez zegoen herrian mugimendurik. Elkarrekin hitz egiten hasi ginen herrian zerbait egin beharra zegoela eta. Ezin zen utzi duela lau urtekoa errepikatzen», argitu du Ozaitak. «Inork ez genuen egoera pertsonal onik

ikusten baina, esfortzu bat egin behar izan dugu», eta Iturriozek gaineratu du: «Beste batzuek egin dute gure aurretik, eta orain guri tokatzen zaigu».

Taldean lan eginez, alkate figura horri garrantzia kendu nahi diote: «Taldea bat izango gara, eta auzolanean egin behar dugu lana. Eta edozein erabaki gatazkatsuren aurrean herriari galde-tuko diogu», azaldu du Iturriozek. Azpimarra jarri du Jaione Olanok: «Taldea bat gara, eta herritarren babesa behar dugu, eta garrantzitsuena beraiek ere parte hartzea izango da. Gu gara korporazioa, baina beraiei isplu izango gara, eta herritarrek parte hartu dezaten saiatuko gara». «Auzolana hori da, herriak herriarentzat gauzak egitea», dio Ozaitak.

Dagoeneko lan ardurak banatu dituzte gai edo arloka, baina Andoni Olanok ildo beretik nabarmendu du «nahiz eta batek eramane, gai potoloren bat bada, denon artean hitz egin beharko dugu eta adostasunera iritsi beharko gara».

Helburuen artean, Maribi Garmendiak dio jendearengana hurbildu nahi dutela, «eta esaterako, plazatik gora jendea bizi da, eta horiengana iritsi nahiko

genuke. Zein behar dituzten galdetu, eta erantzun bat ematen saiatu».

Herritarrek hitza izan dezaten, eta beraiei iritzia plazaratzeko aukerak izan ditzaten, herri batzarrak, batzar informatiboak eta erreferendumak deituko dituzte. Baliarraindarrak, orain artean ere ohituta daudela esan dute horretara, baina erreferendumei garrantzia eman diete: «Gai potoloak daudenean, denon artean erabaki beharko dira. Aurretik, informazioa zabaldu eta eztabaida bat eman beharko da, eta bozka bidez erabaki. Eta herriak esaten duena aurrera eramaten saiatuko gara», adierazi dute.

HERRI PROGRAMA OSATZERA

Lan ildoak zehaztuta, orain, hurrengo lau urteei begira herri programa osatzen hasi nahi dute. Lehenik eta behin, herriko elkarteekin elkartuko dira, eta gero norbanako edo kuadrillen iritzia jasoko dituzte, beharrak eta iritzia jasotzeko.

Hasteko, ordean, udalean guztiak berriak izanik ikasi egin beharko dutela diote, eta kokatu egin nahi dute. Ondoren, euren egunerokoan, udaleko lanei tartea egiteko.

gUr-LAN
BERTIKALAK

ALMACÉN Y OFICINA	TLF. 943883150	POLIGONO BEZUNZIBAR 4, IKAZTEGIETA
EXPOSICIÓN	TLF. 943110011	NAFARROA ETORBIDEA 10, TOLOSA

REFORMAS INTEGRALES

REHABILITACIÓN Y GESTIÓN DE EDIFICIOS Y PATRIMONIO

TRABAJOS VERTICALES Y LINEAS DE VIDA

PROYECTOS Y DIRECCIÓN DE OBRA, PASSIVE HOUSE TRADESPERSON

ENVOLVENTES ENERGÉTICAS SATE, FACHADA VENTILADA, ETC.

zozketak

Atarikideentzat lau kamixeta sorta ditugu

‘Makina bat taupada’
Euskal Eskola Publikoaren jaiko **4 kamixeta sorta** zozketatzen ditugu

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus



IRURA BIZIK BADU LOGOA

Irura Bizik jasotako logo guztiak aztertu ondoren lau aukeratu zituen. Ondoren bozketa irekia egin dute herritarrek irudia aukeratzeko eta Ainhoa Ugaldek aurkeztutakoa atera da garaile. Aizpurua jatetxean bi otordu eskuratu ditu. **ATARIA**



LEHEN SARIA, ADUNARA

Eskolako 6. mailako Aiora Zubillaga ikasleak lortu du lehen saria **Francisco Javier de Landaburu Primus** sariketan, **Gure esku dagoen Europal** arekin. **Europarekiko ezagutzen sa-kontzeko antolatzen du lehiaketa Euro Basquek**. **ATARIA**

Estraktoak aztertu eta landareen osasunaz hitz egiteko tailerra

AMASA-VILLABONA // «Zein produktu ekologiko erabili ditzaket nire baratzerako? Eta zein estrakto?». Galdera hauetaz erantzutuzko diete astelehenean 18:00etatik 19:30era eskainiko den tailerrean. Furgobaratzak gai hauetaz aritzeko bisita egingo du Villabonako Baratze Parkera, ekainaren 24an.

Minbiziaren Aurkako Elkartearen eskerra zizurkildarrei

ZIZURKIL // Ekainaren 8an Zizurkilen egindako diru bilketan 868,78 euro bildu zituen elkartek. Kopuru hori bularreko minbiziaren inguruko inmunoterapia proiektu bat finantzatzeko erabiliko da. Elkartek lurraldeko gizarteari erronka bota dio: 160.000 euro biltzea proiektua bukatu ahal izateko.

Alkizako eskolaren egurrezko egitura jartzen hasi dira

ALKIZA // Alkizako eskola zaharra eraisteko lanak bukatu ondoren, eremu berdinean eskola berriaren egitura eraikitzen hasi dira. Aurreikuspenen arabera, 2019-2020 ikasturtean zehar, edo beranduenez 2020-2021 ikasturtean hasiko du Alkizako Eskolak bere ibilbidea eraikin berrian.



Ikastolako kudeaketa batzordeko bi kidek irakurri zuten pregoia eta Itziar Lazkano zuzendariak piztu zuen suziria. **J.M.**

Ikastolari gorazarre egin dio herriak

Anoetako ikastetxeak aurten 50 urte bete ditu eta ospakizunei amaiera emateko herriko jaiei hasiera emateko suziria pizteko ohorea izan zuten ikastolako ordezkariak; gaur Korputz eguna da, jai egun handia Anoetan

Jon Miranda Anoeta

Atzo arratsaldean lehertu zen festa Anoetan. Txalapartariak kukuaren etorrera iragarri zuten eta elizako kanpandorretik udal-letxe atarirainoko bidea egin zuten Anoetako ikur denak. Aurten, 50. urteurrena duenez, Anoetako Herri Ikastolak izan du pregoia irakurtzeko ohorea eta Joxean Aparicio lehendakariak eta Maialen Mujika kudeaketa batzordeko kideak hartu zuten lan hori. Ikastolako zuzendari Itziar Lazkanok etxafuegoa piztu ondoren, ikastolak berak antolatzen duen danborradan parte hartzen duten umeak hasi ziren kantuan.

Sardina jatearekin eta gaueko erromeriarekin osatu zuten atzoko eguna anoetarrek eta, gaur osteguna, egun handia izango dute. Besteak beste, mozorro eguna izango dute eta herriko eragileek antolatutako saiheski jatea izango da plazan. Astelehenera arte luzatuko dituzte aurten festak Anoetan, San Joan egunarekin bat eginez.

GAURKO EGITARAU

Ekainak 20, gaur

10:30 - 13:30. Haur parkea plazan eta apar festa.

16:00. Haur ikuskizuna plazan. *Ongi etorri, lagun* Zirtaka antzerki taldearen eskutik.

17:30. Txokolate jatea plazan, Atea-ga elkartek antolatutak.

18:00. Loatzoko ikasleen kontzertua plazan.

19:30. Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulari taldearekin.

21:00. Saiheski jatea plazan.

23:00. DJ Bull plazan.

Anoetako eragileen egitaraua

19:00. Tokan2 La Polla.



Urtero bezala ume askok hartu dute parte danborradan. **J.M.**

Abaltzisketan eta Belauntzan festarako gogoz daude

Bihar hasiko dira sanjoanak Abaltzisketan eta larunbatean egingo diote ongietorria Belauntzan; San Joan bezpera, igandea, izango da bi herrietan egunik indartsuena

Irati Salzar Artola

Tolosan ez ezik, Abaltzisketan eta Belauntzan ere San Juan jaiak ospatzen dituzte. Bihar hasiko dituzte festak Abaltzisketan, eta suziria larunbat goizean lehertuko da Belauntzan. Hala ere, bihar iluntzean, 22:00etan, mus txapelketa jokatu dute Belauntzako Martintxoko elkartean, festara gerturatu asmoz.

Urtez urte hutsik egiten ez duten ekitaldiek lekua izango dute aurten ere Abaltzisketan. Horren adibide da San Juan bezperako zaldi lasterketa. Hogeiga-

rrenez ospatuko dute aurten, eta urteroko ibilbidea osatu beharko dute maldan gora: Amezketatik abiatu eta Abaltzisketaraino iritsi beharko dute.

Bestalde, mus txapelketa herrikoia ere badu arrakastarik. Aurten, XVII. txapelketa jokatu dute, larunbatean, 15:30ean.

Eta zer esanik ez San Juan dantza eta soka dantzarekin ere. Mende laurdena aspaldi pasata, XXXII. aldiz dantzatu dira herriko plazan, San Juan bezpera egunean.

Sanjoanez gainera, San Pedro eguneko ospakizuna egingo

dute Larraitzen, ekainaren 30ean. Goizean mezarekin hasi, eta hamaiketako eta trikitiak izango dituzte eguna alaitzeko.

BOST EGUNEKO FESTAK

Larunbat goizean lehertuko da festa Belauntzan, eta asteartera bitarte luzatuko dituzte jaiak.

Kirol ezberdinetako txapelketak jokatu dituzte festetan zehar. Bolo eta toka txapelketa izango dituzte larunbat goizean, eta arratsaldean frontenis txapelketa jokatu dute. Igandean, berriz, arku tiroan aritzeko aukera izango da.



Goian, iazko zaldi lasterketa; behean, Belauntzako sagardo dastatzea. ATARIA

EGITARAUAK

ABALTZISKETA

Ekainak 21, ostirala

13:30. Triki-poteoa.

14:30. Bertso bazkaria, Julio Soto, Haritz Mujika eta Iker Zubeldiarekin.

21:00. Barrikotea herriko plazan.

Afaria norberak eramanda.

Jarraian. Erromeria: Obaneuke.

Ekainak 22, larunbata

11:00. Umejolasak.

13:00. Haur eta gurasoen bazkaria. Janaria norberak emanda.

15:30. XVII. mus txapelketa, herriarrentzat.

21:00. Sagardo dastatzea herriko plazan. Sagardoak: Larrarte, Isastegi, Rufino, Etxeberria, Begiristain,

Petritegi, Aburuza, Zabala, Urbitarte eta Zalbide.

Jarraian. Erromeria Kupela taldearekin.

Ekainak 23, igandea

12:00. Gipuzkoako sega txapelketa-finala.

18:00. XX. Zaldi lasterketa Amezketatik Abaltzisketara.

Ondoren. Herriarren arteko jokoak.

Jarraian. Erromeria Elizagoien ahizpekin.

21:30. San Juan sua.

Ondoren. XXXII. San Juan dantza eta soka dantza.

Jarraian. Erromeria Elizagoien ahizpekin.

Ekainak 24, astelehena

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Jubilatuen arteko hamaiketako.

Bitartean. Triki-poteoa herriko gazteen eskutik.

13:00. VI. Aitor toka txapelketa.

19:00. Tortilla patata lehiaketa.

21:00. Herri afaria, janaria norberak emanda.

Ekainak 30, igandea

12:30. Meza nagusia Larraizko ermitan.

Ondoren. Hamaiketako Larraitzen.

Bitartean. Trikitilariak.

Arratsaldean. Berriro ere trikitixa, iluntzera arte.

BELAUNTZA

Ekainak 21, ostirala

22:00. Mus txapelketa Martintxoko elkartean.

Ekainak 22, larunbata

09:45. Suziriak festei hasiera emateko.

10:00. Bolo eta toka txapelketa.

16:30. Frontenis txapelketa herrikoia.

21:30. Herri afaria frontoian eta ondoren, musika.

Ekainak 23, igandea

10:00-14:00. Haurrentzako puzgarriak, 2-12 urte artekoentzat. Eguerdia on eginez gero, apar festa.

11:00-12:00. Aurpegi pintaketa haurrentzat.

16:00-19:00. Arku tiroa.

19:30. Sagardo dastatzea pintxoak eta urdaiazpiko mozaketa.

21:00. San Joan sua ikastola ondoan.

Ondoren. Suziriak.

Ekainak 24, astelehena

11:00. San Joan meza.

Ondoren. Hamaiketako tabernan.

16:30. Gorriti bere animaliekin.

19:00. Sarini Zirkoa: Txoriak Txori akrobazia ikuskizuna.

Ekainak 25, asteartea

20:00. Saiheski jatea eta suziriak festei amaiera emateko.

Hilberriak eta urteurrenak



Rufino Iraola Garmendia



*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*

Bianditzen lagunak

ZALDIBIAN, 2019ko ekainaren 20an

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Quebrantahuesos proba egingo da etzi, Sabiñanigotik abiatzen den txirrindularitza lasterketa. Zortzi mila zikloturista izango dira bertan, horietatik bost Bidania-Goiazkoak.

Boskotea bi gurpilen gainean

Imanol Garcia Landa
Bidania-Goiatz

Ez ditu nolanahiko zenbakiak Quebrantahuesos txirrindularitza probak: 200 kilometro, 4 mendate, 3.500 metro maldan gora, eta 8.000 parte hartzaile. Horietatik bost Bidania-Goiazkoak eta belaunaldi berekoak: Andoni Egiguren eta Txomin Arzallus goiazarrak, eta Mikel Lasa, Asier Iraola eta Iosu Elola bidaniarrak.

27 eta 31 urte bitartean dituzte, eta orain dela hiru-lau urte hasi ziren bizikletarekin. Horren aurretik kirola egiten zuten, korrika eginez edo mendira joanez. «Bizikletarekin hasi eta martxa motzagoak egiteari ekin genion, Treparriscos modukoak», esan du Elolak. «Gero, elkarrekin izanik, errazagoa da animatzea eta orain bi urte egin genuen batera Quebrantahuesos proba». Aurten ere animatu zaie Aitor Aldalur bidaniarra proba horretan parte hartzera. Beste belaunaldiko batekoa da eta tarteak elkartzen zaie ere entrenamendu batzuk egiteko.

Larunbata iristeko gogoz daukela dio Elolak: «Gustura hasten gara entrenatzen, baina gero luze samarra egiten da baita ere. Egun batzuk izaten dira eguraldi txarra edo behintzat ona ez dena, eta nahitaez ibili beharra dago, kilometroak sartu behar dira gero proba ondo egiteko. Kuadrillan errazago eramaten da hori».

Probarako sentsazio onekin daukela gaineratu du, eta larunbatean helburua aurretik duten denbora hobetzea dela. Sei ordu eta erdi eta zazpi ordu bitartean helmugaratu nahi dute. «Hasieran batera joango gara, baina gero bakoitza bere erritmora joango da. Proba batzuetan batera joaten gara, baina Quebrantahuesos bereziki prestatzen dugu, eta hor bakoitzak bere lasterketa egingo du», esan du Elolak. «Normalean bantzen joaten gara bakoitzak erritmoa jaisten duenean. 122 kilometroan hasten da Portalet mendatearen aldapa, 28 kilometro ditu, eta hor indarrak agintzen du; ikusi behar da bakoitzak zenbateko indarra duen, eta horren arabera makalago joaten hasten zara. Gaine-



Egiguren, Arzallus, Iraola, Lasa eta Elola, beste proba bateko irudian. ATARIA

ra, badakigu bakoitza nola moldatzen den, eta zeini jarraitu ahal diozun eta zeini ez».

GORPUTZA ETA BURUA, BIAK BEHARREZKO

Lau mendateetan lehenengoa Somport da, 50. kilometroan bukatzen dena. Bigarrena Marie Blanc da, 100. kilometroaren inguruan; «maldarik gogorrenak ditu, baina azkenean 6-7 kilometro dira gogorrak». Portalet da hi-

rugarren mendatea. «Ez ditu malda gogor-gogorrak, %6 edo 7 batez beste, baina 28 kilometroko igoera da, eta horrek markatu ohi du proban egiten duzun denbora». Azken portua Hoz de Jaca da, 25 kilometro falta direla helmugarako. «Bi kilometro ditu, eta helmuga gertu dagoela pentsatuz pasatzen da».

Horrelako proba luze eta gogor bati aurre egiteko indarra bakarrik ez dela nahikoa dio Elolak:

«Derrigorrez unereren batean gaizki pasatzen duzu. Ondoen zoazenean ere, azkenean une batean gogor egin behar zaio buruari. Noski, fisikoki ondo egon behar da derrigor, gero gorputzari buelta eman behar zaiolako, baina une horietan egoskorra izatea garrantzitsua da. Azkenean, gorputzak eta buruak, biek erantzun behar dute».

Zortzi mila partaide izaten dira lasterketan, baina izena ematen dutenak gehiago izaten dira. Hori horrela, zozketa egiten da, edo bestela, boskoteak lehenengo urtean egin moduan, Treparriscos proban parte hartu daiteke. «Aurreko urtean izena eman genuen Quebrantahuesos zozketan parte hartzeko, baina ez zitzaigun egokitu. Orduan, aukera izaten da antolatzaileek beraiek antolatzen duten eta kilometro gutxiago dituen Treparriscos egin eta hurrengo urterako dortsala izateko».

Probaren hasieran nahiko kaos izaten dela dio Elolak: «Gero behin Somporteko maldak iristen direnean, nahiko leku izaten da». Lasterketan zehar «giro oso ona» izaten dela dio, eta «oso ondo antolatuta» dagoela gaineratu du. «Izena hartu du probak, eta jende dezente izaten da ikusten eta animatzen. Normalean txirrindularien senide eta lagunak hasieran ez dira izaten, eta portuetara joaten dira animoak ematera. Ondoren, helmugara joaten dira bukaera ikustera».

Ane Iturriak La Sagra Skyrace mendi lasterketa irabazi du

Erredakzioa

Alpino Uzturreko Ane Iturria korrikalari tolosarrak Granadan jokatu den La Sagra Skyrace mendi lasterketa irabazi du, junior mailan. Espainiako Kopakorako baliagarri den probaren 15 kilometroko ibilbidea egiteko bi ordu eta sei minutu behar izan ditu Iturriak. Lasterketa bere osotasunean kontuan hartuta, helmugan 19.a izan zen tolosarra. Bigarren emakume juniorrari 14 minutuko aldea atera zion, eta hirugarrenari 16koa.

Espainiako Kopako sailkapenean lehen postuan dago Iturria, 388 punturekin. Guztira bost proba jokatu dira eta tolosarrak horietatik hiru irabazi ditu: La Sagra Skyracen aurretik, MABO



Ane Iturria, erdian, bigarren eta hirugarren sailkatuarekin. ATARIA

2019n eta Kanpezu-Ioar mendi lasterketan lehen postua lortu zuen. Zumaian jokatu da Ko-

paren azken proba, Zumaia Flysch Trail izenekoa, igande honetan.

Eneko Maiz berriro ere Espainiako txapelkun trinketean

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eneko Maiz Behar Zanak pilotariak buruz buru, trinketean, Espainiako Txapelketa irabazi du nagusien mailan. Asteburuan beste final bat jokatu du Maizek, derbia izango dena: Gipuzkoako nagusi mailan, lau eta erdian, Behar Zanak Jon Urbietaren aurka ariko da.

Behar Zanak pilotari gazte txoek ere finalak dituzte. Gipuzkoako Udaberri txapelketan, alebin errendimendutan, Inhar Iparragirre eta Unax Barberok finala jokatu dute. Ekialde adarreko finalean, Markel Maulman eta Pello Aranburu ariko dira.

Xare Eskolako finalak jokatu dituzte, bihar, Iruran

Erredakzioa Irura

Irurako Ametsa Pilota Elkartek antolatuta, xare eskolako txapelketetako finalekin emango zaio amaiera, ostiralean, denboraldi honetako Xare Eskola kanpainari. Finalak bihar, 17:30ean hasita, jokatu dira Irurako Ametsa trinketean.

61 neska-mutil aritu dira ikasurte osoan, bost mailatan banatuta, Xare Eskolan. Irakasleek bikoteak osatu ondoren, maiatzean eta ekainean ligaxkak eta finalerdiak jokatu dituzte xarelariek. Bihar, beraz, maila bakoitzeko finalak jokatu dira Ametsa trinketean.



OSTEGUNA, 2019KO EKAINAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Lau eta erdiko finalak, igandean, Beotibar pilotalekuan

San Juan Saria lau eta erdiko txapelketako finalak izango dira igandean Tolosan, 17:00etatik aurrera; elite mailan Espinal eta Zubizarreta egongo dira aurrez aurre

Erredakzioa Tolosa

Tolosako lau eta erdiko San Juan Txapelketaren finalak erabakita geratu dira.

Larunbatean jokatu ziren finalerdiak eta igandean izango dira finalak, Tolosako Beotibarran, 17:00etatik aurrera.

Jubenilen, etorkizuneko eliteko pilotarien arteko partidak ikusi ahal izango dira, Tolosako San Juan jaian barruan. Eskualdeko ordezkariak ez da izango hiru finalerdi.

JUBENILEN ETA ETORKIZUNEKOEN MAILAK

Jubeniletan Gutierrezek eta De La Fuentek jokatu dute finala. Azken hau da faborittoa, baina errioxarrak pilotari gogorra dela erakutsi du eta partida polita aurreikusten da.

Etorkizuneko elite mailan, Julen Alberdi eta Arribillaga iritsi dira finalera.

Azpeitiarra da faborittoa, kalitate handiko pilotaria delako. Hala eta guztiz ere, Arribillaga txapelketako ezustekoa izaten ari da, eta azken bi partidetan oso ondo aritu da.



Larunbateko jubenilen arteko finalerdi. AGERREMEDIA.COM

ELITE MAILAKO PARTIDAK

Elite mailako finala Espinal eta Zubizarretak jokatu dute. Partida parekatua ikusten da, baina Zubizarreta kaiolan bi-

kain moldatzen den pilotaria dela kontuan hartuta, agian txapela gertuago izan lezake. Espinalak hala ere, txapelketa bikaina egin du.

OSTEGUNA 20

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. lurreamendi egoitzako festa: 10:30ean meza; 11:00etan hamaiketako; eta 16:00etan egoiliarren emanaldia eta 90 urte bete dituzten egoiliarrei omenaldia.

Anoeta. Festa: 10:30etik 13:30era haur parkea plazan, eta apar festa (euririk egiten ez badu); 16:00etan Zirtaka antzerki taldearen *Ongi etorri, lagun* haur ikuskizuna, plazan; 17:30ean txokolate jatea plazan, Ateaga Elkartek antolatutako; 18:00etan Loatzoko ikasleen kontzertua, plazan; 19:30ean buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulari taldearekin; 21:00etan sailheski jatea plazan, Anoetako eragileek antolatutako (txartelak salgai herriko taberna guztietan); eta 23:00etan DJ Bull, plazan. Barraken prezioa merkeagoa izango da.

Tolosa. Toka elkarte Harizpe elkarteak antolatuta, 12:00etan, San Frantzisko pasealekuan.

Tolosa. Tolosako musika eskolako ikasleen kontzertua Uzturre egoitzan, 17:30ean.

Tolosa. Asuncion klinikak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan *Desnutrizioa eta ahultasuna adineko pertsonengan* eskainiko du Joseba Muñoz geriatriak 18:00etatik aurrera, Zerkausian.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
16:30. Hiri baratzea.
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
22:00. Urrutiagunbe.
22:30. Ajoarrieroa (Alazne Juaniz).
23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

ATARIA IRRATIA

09:00-10:00. Hamaiketako. Anoetaldea, Villabona-Aiztondoko berriak
10:00-12:00. Pasahitza saioa Anoetatik, saio berezia zuzenean jailetako protagonistekin.
12:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.
13:00. Erakutsiz ikasi. Ibarrako Uzturpe ikastola.

16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko onena.
20:00. Erakutsiz ikasi. Ibarrako Uzturpe ikastola.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi busti eta askoz freskoagoa. Ipar-mendealdeko haizea nagusituko da egun osoz eta horrekin batetik, tenperatura maximoak nabarmen egingo du beheara eta bestetik, zeruan hodeiak nagusituko dira. Hodei hauek tarteka euri txikia utziko digute, baztertu gabe arratsaldean ekaitzen bat garatu eta zaparrada mardulagoren bat botatzea. Tenperatura maximoa eguneko erdiko orduetan nekez pasako da 19-20 gradutik.

Bihar. Giro tristearekin hasi arren, eguraldian hobera egingo du. Goizean eta arratsalde erdira arte ipar-mendealdeko haizearekin oraindik zeruan hodei asko pilatuko da eta euri pixka bat ere izango dugu. Orokorrean euri zaparradak ahulak izango dira, baina egunsentian eta goizean ekaitz hondarren bat geratu eta zaparrada mardulagoren bat bota dezake. Arratsalde erditik aurrera, haizeak ekialde/hego-ekialdeko ukitua hartuko du, erabat atertu eta eguna amaitzerako ostarte zabalak irekiko dira. Termometroek beste koska bat beheara egin eta gehienez 16-18 gradu harrapatuko dituzte.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefono zenbakia: 943 67 60 13.
Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amaratx auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ONDO PASA
SANJOANAK!

GARIKANO TOLDOAK

Araba Etorbidea, 1 - Tel. 943 65 18 29
20400 **TOLOSA** (Gipuzkoa)

**ZORION
AGURRAK**

Urtebetzeak,
urrezko
ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak
...

943 65 56 95
—
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa